

*Ekainaren 23an gure joko zelaia zabaltzera goaz. Gure hizkuntza hesirik gabeko eremua dela erakutsiko dugu, gure herria mugarik gabea nahi dugula. Jolastu, jokatu, jauzi, korri egingo dugu edozeinek bezala, gure hizkuntzan. Galdu, irabazi, erori eta jaiki edozein selekzio bezala, baina euskaraz. Aukerak sortu, huts egin, asmatu, eman, kendu, jaso, ospatu edonork bezala, gure koloreekin eta euskaraz.*

*Batzen gaituenaren alde egingo dugu, eta talde gisa joango gara, hamaika, milaka lagun, denok aho batez denok joko berean, denak hizkuntza bera ahotan, buruan, bihotzean eta zangoetan. Korri, hitz egin, amestu, jokatu, jolastu, herri bat talde bihurtua, euskaraz.*

*Ekainaren 23an euskal selekzioak eta euskarak ez dute izango ezikusiaarena egiten duten epailerik, ez joko kanpo utziko duten marrazainik, ez eta inork ikusten ez duen faltarik. Egun horretan, galdu ala irabazi, gu izango gara. Garen bezalakoak, jolasean, jokoan, erortzean, jaikitzean... selekzio bat, euskaraz.*

*Egun horretan gure ezbaia, gure auzia, ez da emaitzaren araberakoa izango. Egun horretan harmailak betetzen ditugun neurrian irabazi egingo dugu. Gure nahia, ametsa, asmoa, mezua zangotik zangora, ahotik ahora pasako dugu, airean irudiak eraikiz, nik zuri, zuk hari, lepoa altxa, pasa, hartu, hutsunera bidali, nor dagoen libre antzeman, eskatu, bota, gelditu, aukerak sortuz...*

*Ekainaren 23an irudimena erabiliko dugu, gogoia, grina, ilusioa. Gorputz, aho eta bihotz. Garen bezalakoak azalduko gara, garen bezalaxe hitz eginez, gure koloreekin, herri egiten gaituena jantziz: euskara.*

*Egun horretan ez dugu etsairik izango joko zelaian. Arerioa lagun izango dugu, gure bidelagun, guztiak berdinak garela ikusten, ikustarazten lagunduko digu, ez garela inor baino gutxiago, edonorekin lehiatu, jokatu edo jolastu dezakegula erakusten lagunduko digu.*

*Gure hizkuntzaren geroa eta gure selekzioen onarpena dago jokoan eta ekainaren 23an, Anoetako futbol zelaian etorkizuna irabaztera aterako gara beste behin ere. Denok batera, hamaika, milaka, euskaraz!*